IV. EL ABRA – GETXO KIROL PORTUKO ITSAS ZEHARKALDIA

ITSAS ZEHARKALDIAREN ARAUDI ZEHATZA

1. KIROL PROBAREN DATUAK

- **Data:** 2018-eko ekainaren 3.
- **Tokia:** Getxo Kirol Portua, Bizkaia.
- **Ordua:**
  - Promesak kategoria: 11:00-etan.
  - Emakumezkoen eta gizonezkoen absoluto kategoriak eta ezgaituasunen kategoria: 11:30-etan.
- **Distantzia:**
  - Promesak kategoria: 350m.
  - Emakumezkoen eta gizonezkoen absoluto kategoriak eta ezgaituasunen kategoria: 1km.
- **Partaidea kopurua:** 400.
- **Idazkaritza teknkikoa itxiera:** 10:45-etan.
- **Dohaina:** 15€.

2. KATEGORIAK

4 kategoriak antolatu dira:

- Emakumezkoen absolutoa: 1km.
- Gizonezkoen absolutoa: 1km
- Promesak: 2004-ko ondoren jaioak: 350m.
- Ezgaitasunak: 1km.

3. SARIAK

Hurrengo sariak egongo dira:

- Lehenengo emakumezkoen kategoria.
- Lehenengo gizonezkoen kategoria.
- Lehenengo promesa kategoria.

- Lehenengo ezgaitasunen kategoria.
- Lehenengo emakumezkoen Getxoztarra.
- Lehenengo gizonezkoen Getxoztarra.

4. **DENBORA NEURKETA**

Denbora neurketa txip elektronikoarekin egingo da, eta eskuin eskuan jarriko da.

5. DENBORA MUGA

Ez dago denbora mugarik proba bukatzeko.

6. INSKRIPZIOAK / DOHAINAK

Inskripzioa / dohaina www.sailkapenak.com web horrian bidez egin ahal da. Inskripzioa / dohaina erabat pertsonala da, ezin da transferitu edo elkarbanatu. Dohainak araudi dokumentu honen artikulu guztiak betetzeak adierazten du, dortsal erosketa baldintzak barne.

Kirol probara gerturatu ezin den eta izena emanda duen partaideak, ezin dizkio bere parte-hartze eskubideak transferitu beste pertsona bati. Beraz, edozein pertsona, bere parte-hartze plaza beste hirugarren bati transferitu ezkero, pertsona honek egindako edozein ezbehar edo istripuaren erantzule zuzena eta bakarra izango da. Antolakuntza ez da inondik-inora erantzule izango horrelako kausak ematen direnean. Antolakuntzak eskubidea izango da, horrelako kasuren bat antzematen duenean bai dortsala transferitu duen pertsonari eta baita berea ez den dortsala erabiltzen duena zigortzeko.

Itsaso zein giro baldintza txarren aurrean edota beste ustekabe inportante baten aurrean (adibide: marmoka ugarien agerpena, korronte handiak, haize bolada handiak, etab.) non partaideen segurtasuna bermatzea posiblea ez denean, antolakuntzak eskubidea izango du ibilbidea moldatzeko edota kirol proba bertan behera uzteko. Kasu hauetan, antolakuntzak ez du inskripzio / dohaina diru kantitatea itzuliko.

Inskripzioen / dohainen prezioak:

- Promesak eta ezgaitasunen kategoriak: dohain.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen absoluto kategoriak: 15€.
- **Mozkinak Begisare Elkarteari emango dira.**

Inskripzioaren / dohainaren barnean:

- Itsas Zeharkaldian parte hartzeko aukera.
- Erantzukizun Zibileko asegurua baita ere istripu asegurua igeriketan federatuta ez
- daudenentzat.
- Osasun laguntza / sorospidea kirol proba unenan eta bukaeran.
- Janari / edari horniketa kirol proba ostean.

Inskripzioa epea:

- Haiera: inskripzioak laster irekiko ditugu.
- Bukaera: maiatzaren 31an, 23:59-etan.
- Ezin ahal izango da kirol probaren egunean inskripzioa egin.

Kirol proba honetan ezin ahal dutenek parte hartu baina kausaren alde diru-ekarpena eman nahi dutenek, inskripzioa / dohaina bidez egin ahal dute edo gurekin kontaktatu ahal dezakete info@tehswimet.com - en.

Ez da egongo itxarote zerrendarik.

7. PARTE-HARTZEA ETA ASEGURUAK

Partaide guztiek kirol proba hau burutzeko osasun egoera daudela baieztatzen dute eta aldi berean ez dutela IV. El Abra – Getxo Kirol Portuko Itsas Zeharkaldian kirol proba egiteko eragozten dieten arrazoien ezagutzarik. Honengatik, igerilariek euren erantzukizunaren gain parte hartzea onartzen dute.

Antolakuntzak jakinarazten du igeriketa ur irekitan burutzean dakartzan arriskuak izango dituela; hori dela eta, parte hartzaileak, prestakuntza ona, esperientzia eta osasun egoera egokia izan beharko dute; horrela ez bada, kirol proba honetan ez parte-hartzearen gomendioa luzatzen dugu. Ildo honen inguruan, antolakuntzak zalantzak baditu edozein partaideren egoerarekin kirol proban parte hartzeko, mediku agiri ofizial bat eskatuko zaio, non, mediku kolegiatu baten onarpena erakutsiko duen, itsas zeharkaldia hau burutzeko inolako osasun eta segurtasun arazorik gabe. Honekin jarraituz, antolakuntzak eskubidea izango du, bere irizpidearen arabera baldintza minimoak betetzen ez dituzten partaideak ez onartzeko eta proba egunean dortsala kentzeko.

Parte-hartzea edozein naziotasuneko pertsonei luzatua dago, igeriketan federatuak edo federatu gabeak. Adin txikikoen kasuan (18 urtetatik beherakoak) euren lizentzia federatiboa (Igeriketa Federazioa) aurkeztu beharko dute edo, hori ezean, euren guraso edo tutorearen baimen agiria sinatuta aurkeztu beharko dute dortsala jasotzerakoan. Adin txikiko inork ezin izango du kirol proba honetan burutu aurrean azaldutako baimen agiria aurkezten ez badu.

Indarrean dagoen legedia jarraituz, antolakuntzak Erantzukizun Zibileko asegurua kontratatua du eta baita ere istripu asegurua igeriketan federatuta ez daudenentzat.

8. SEGURTASUNA

Segurtasun operatibo bat bermatua dago bai uretan baita lurrean ere. Kirol proba egunean, uretan, segurtasun lantalde hau egongo da: SUP-ak eta ontzi profesionala, baita ere itsasoko salbamenduko itsasontzi bat.

Lurrean, osasun zerbitzuak ez dira faltako, anbulantzi bat eta baita ere sendagilea.

Antolakuntzako segurtasun eta osasun zerbitzuak eskubidea izango dute partaideren bat kirol proba honetik ateratzeko arrazoi mediku edo aurrerago azalduko den arrazoiak direla medio.

Segurtasun neurriak hobetzeko **Nazioarteko Salbamendu seinaleztapen sistema** jarraituko dugu:

9. NEOPRENO ETA MATERIAL OSAGARRIAK

Neoprenoaren erabilera baimenduta dago baina ez da derrigorrezkoa.

Derrigorrezkoa izango da, antolakuntzak banatuko duen igeriketa txanoa erabiltzea uretako ikuspena eta segurtasun arrazoiengatik. Antolakuntzak banatu ez duen txano desberdin bat erabiltzean duenak, probatik kanpo egongo da lehenengo momentutik; antolakuntzak ulertzen baitu probatik kanpo dagoen edozein pertsona, ezin dela ibilbide erdian egon, bertako partaideak eta kirol-proba bera oztopatu nahian, eta beraz, segurtasun neurriak erabiliz, probatik aldentzera behartuko zaio.

Aparatu elektroniko hauek baimenduta daude, hala nola, erlojuak, pultsometroak edota uretako GPS-ak, baina erabat baztertuta egongo dira (ezin erabili) uretako musika aparatuak edo antzekoak.

Edozein material osagarri, propultsioa edo flotazioa lagunduko dutena adibidez, ezin izango dira erabili; antolakuntzak erabakiko du, salbuespenik balego.

10. JANARI / EDARI HORNIKETA

Antolakuntzak janari eta edari horniketa ahalbidetuko du proba bukaeran.

11. PROBA BUKATU ETA BERTA BEHERA UZTEA

Antolakuntzak beharrezkoa ikusten duen unean eskubidea izango du partaideren bat probatik ateratzeko eta bere parte-hartzea bertan behera uzteko. Beti ere, partaide guztien segurtasuna jarriko da lehentasun bezala. Partaide baten parte hartzea bertan behera uzteko arrazoiak:

- Baldintza meteorologiko desegokiak proba burutzeko, non partaideen segurtasuna bermatzeko zailtasunak egon daitezke.
- Igerilari batek deshidratazio seinaleak, hipotermia, neke larria, igeriketa erritmo guztiz geldoa edo igeri egiteko ezintasuna adierazten duen bestelako seinaleak erakusten dituenean.
- Segurtasun baldintzak eta mugak errespetatzen ez dituzten igerilariak. Igeri egin beharko da segurtasun lan talde teknikoak egiten dituen adierazpenak jarraituz, beti.
- Igerilari batek sorospena eskatzen duenean, 8. puntuan adierazten moduen.

12. PROBA IBILBIDEAREN EGOKITZEA

Itsaso zein giro baldintza txarren aurrean edota beste ustekabe inportante baten aurrean (adibide: marmoka ugarien agerpena, korronte handiak, haize bolada handiak, etab.) non partaideen segurtasuna bermatzea posiblea ez denean, antolakuntzak eskubidea izango du ibilbidea moldatzeko edota kirol proba bertan behera uzteko.

Kasu hauetan, antolakuntzak ez du inskripzioa / dohaina diru kantitatea itzuliko.

13. SAILKAPENAK

Sailkapenak web horri hauetan jarriko ditugu:

- www.theswimet.com/noticias
- www.sailkapenak.com

KONTAKTUA

The Swimet:

- Kontaktu-pertsona: Joseba Cercas.
- Mugikorra: 630 039 153.
- Emaila: info@theswimet.com
- Web horria: www.theswimet.com